

Ez hala pentsatua zegoelako, ezpada kasualitatez, Josu Martinezen *Bizkarsoro* filmak eta Ainize Madariagak Joana Idiart Davanti egindako elkarrizketa luze mamitsuak garai bertsuan ikusi dute argia. Lehena ikusi eta bigarrena irakurri, eta balirudike Bizkarsoroko istorioetan kontaktzen den azken mende beteko euskararen kontrako jazarpena eta agertzen diren pertsonaia hainbat Idiartek berak bizi eta gorpuztu izan dituela. Bizkarsoroko haurra, gaztea, ama Idiart dira. Bata fikzioa da eta bestea benetan gertatua: biak errealitate beraren hari eta haragi. Idiart, 92 urteko amendüztarra, behar baino gutxiago ezagutzen dugun emaztea da, eta *Historia bizia* saileko elkarrizketa guztiekin gertatzen den bezala, haren bizitzaren historia Euskal Herriaren historiaren ispilu da. Gerren artean hazi eta hezia, zurien familian sortua eta gorriekin borrokan aritua, mundu zahar eta berriaren arteko lekuko eta eragile izan da.

Ekimen askoren lehen aldian egon da Idiart, aitzindarietako bat: abertzaletasunean, ikastolen sorreran, euskararen auzian edo emakumeen aldeko borrokan bide berriak irekitzen. Beti taldean eta beti elkartasun izpiritu batekin. Pariseko Euskal Etxea, Euskaldun Gazteria, *Gazte* aldizkaria, emazteen arteko elkartasuna eta abortatzeko eskubidearen aldeko lana, Emazteek Diote kooperatiba, Hazparneko Ezkia Ikastola... Idiart Pariseko Euskal Etxean irudikatu du Dom Campistronek kontrazalean, karta jokoan, neskame joandako beste euskaldunekin.

Zer da zaintza? Gaur-gaurko galdera dute abiapuntu Alaitz Uriarte eta Maider Barañano soziologoek. Zertaz ari gara zaintzaz ari garenean? Eta zaintzaren gainean pentsatzen dugunak zer ondorio ditu gure praktketan? Iruditeriak aztertu dituzte, iruditeriek errealitate jakinak eta aritzeko modu jakinak sortzen dituztelako. Galderak erantzuteko, errealitatean bermatu dituzte oinak, eta Zestoako zaintza zerbitzuen eta horien eraldaketarako egitasmoaren gaine-ko ikerketa oinarri hartuta eta zaintza ekosistemaren garapena helburu dutela egin dute landa-lana.

Shu Otero filosofoa ere zaintzaz ari da *Egunen gurpilean* saileko bere lehen artikuluan –ongi etorri gure artera!–. Zaintzaz adina mi-

naz ari da Otero, artikulua benetan bikainean. Pertsonala politikoa dela dioen Kate Milletten maximari jarraituz, nitik gura egiten du minaren diagnosia Oterok. Nondik bestela hitz egin daiteke sinisgarri izateko eta eraldaketarako bideak jorratzen hasteko. Norberaren mina eta gizartearen minak: zer forma hartzen dute eta nola egin diezaiekegu aurre? Horra galdera.

Joanes Igeregi ere gizartearen 'minez' ari da, mugikortasunaren auzia begi zoliz begiratzuz eta erronka ekosozialaren bidean jarritz. Eta Cira Crespok igande arratsaldeak, Marilyn Monroe, Terenci Moix eta Txillardegia lotura itxuraz inprobableetan lotu ditu.